

Ekonomiaz aldizkariaren ale honek «Bankuak eta eskualdeen hazkundera» du izenburua, eta helburua, aztertzea zer-nolako eragina duten banku-sistemak eta diru-politikak eskualdeen hazkunde ekonomikoan. Alde horretatik, eskualdetzat hartuko ditugu herrialde bateko ekonomiaren barruko eremu ekonomiko berezituak zein nazioz gaindiko unitate ekonomikoen barruko estatu subiranoak.

Gauza jakina da 1990eko hamarkadaren amaiera aldetik XXI. mendeko lehenengo hamarkadaren bigarren erdialdea aurrera arteko ohiz kanpoko baldintza finantzario onak (interes-tasa txikiak eta bankuen kreditu-bolumenaren hazkunde azkarrak) nabarmen onuragarriak izan zirela, oso lagungarriak izan baitziren Espainiako ekonomia ohiz kanpoko moduan hazteko garai hartan, baina, aldi berean, neurri batean, kaltegarriak ere izan zirela, urte haietako hazkunde-eredua deformatzea ekarri baitzuten, eta ahultasun eta ezegonkortasun finantzarioa handitzea –azkenean, 2008tik murgilduta gauden krisialdi sakona eragin zuen ahultasun eta ezegonkortasun finantzarioa handitzeak–. Bada, gure ustez, hori nahikoa da *Ekonomiaz* aldizkariko Erredakzio Kontseiluak erabaki izateko ale monografiko bat programatzea aztertzeko zer-nolako eragina izan dezaketen eskualdeen hazkundera diru- eta finantza-faktoreek eta zer ondorio izan ditzakeen eskualdeen hazkundera krisiaren ostean Espainiako banku-sisteman sortzen ari den egoera berriak.


Nolanahi ere, ezinbestean, aintzat hartu behar dugu aipatutako helburua izugarri handinahi eta konplexua dela, kontua ez baita bi elementu aztertzea soilik: banku-sistema eta hazkundera –gainera, bi elementuok berezko konplexutasun handia dute, eta oso ikuspegi desberdinetatik azter daitezke–. Aitzitik, erronka are zailagoa da. Batetik, «finantzek» hazkundera duten eragina aztertzeko, inplizituki, beharrezkoa da zehaztea zer harreman (eta berrelikadura) izan daitezkeen bi elementuon artean. Bestetik, beharrezkoa da zehaztea finantza-egiturako zer elementu diren lagungarrien hazkundera orekatua eta jasangarria izateko eskualdeen ikuspuntutik; gaia ez da hutsala, aintzat hartuta zenbat hedatu eta sofistikatatu diren finantzak azken hamarkadetan eta zer-nolako hausnarketak sorrarazi dituen krisialdi honek haien funtzionaltasun ekonomikoari buruz.

Lan zaila dugunez gero aurrez aurre, oso tentagarria da hazkunde ekonomikoari buruzko eredu konbentzionaletara jotzea: finantza-sistemak hazkunderari egiten

dion ekarpena aztertze, merkatuaren hutsegiteak eta informazioaren asimetriak zehazten dituzte; izan ere, horiek guztiek bitartekaritza-lana egitea eragozten diote finantza-sistemari, eta, horren ondorioz, erabilgarri dauden finantza-baliabideak eraginkortasunez esleitzea. Hala ere, kontuan izan behar dugu baldin eta horrelakorik egitea aukeratuko bagenu –jarraian azalduko dugunez, teoria ortodoxoak babes-ten duen oinarri dogmatiko baten gainean eratu da aukera hori: diruaren neutraltasun-printzipioaren gainean– azterketa sinplifikatuko genukeela eta, gainera, gure burua zentsuratuko genukeela; izan ere, aintzat hartuko bagenu diruaren eta bankuen neutraltasun-printzipioak, ezingo genituzke aztertu bitartekaritza-lana eta transakzioak egiteaz beste funtzio batzuk, azterketa horren testuinguruan horiek bailirateke finantza-sistemari aitortuko litzaizkiokeen bakarrak eta funtsezkoak, eta diru-politikari hazkundearen inguruan aitortuko litzaizkiokeenak. Hau da, azterketatik kanpo utziko genituzke gaurkotasan handiko gai batzuk, oso egokiak gaur egun, atzeraldi sakon batean gauden honetan –Espainiako ekonomia egoera horretan da duela zenbait urte–, hala nola diru-agintariak esku hartzea hazkundera sustatzeko, finantza-egonkortasuna ziurtatzeko eta bultzatzeko kreditu-erakundeek kreditua eman dezaten eta, hartara, kapital produktiboaren stocka handitu dadin, kapital zirkulatuak finantzatu dadin eta eskari efektiboa susta dadin.

Jakina, gogorarazi nahi dugu jorratu nahi ditugun egoera guztiak aztertzea eta hausnartzea bateraezina dela diruaren neutraltasun-printzipioari eustearekin, ikuspegi konbentzionalak bere egiten duen dogmari eustearekin. Izan ere, ohiko ikuspegiaren barruan, betidanik, konplexua izan da, eta are deserosoa, aldagai monetario eta finantzarioak bateratzea sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren eredu bat osatzeko; hainbestearino, non analisisa termino errealean egiten den askotan eta ontzat ematen den ondorioak baliagarriak direla dirua eta finantza-merkatuak dauden mundu batean.

Bestalde, diruaren neutraltasun-printzipioa argudiatuz, eskualdeen hazkundera eragina duten faktoreak aztertu dituztenean, eskualdeetako ekonomian espezialistek alde batera utzi izan dituzte dirua eta finantza-fluxuak, ez baitute aurkitu batere arrazoirik zalantzan jartzeko ea printzipio hori baliozkoa den eskualde-mailan. Gainera, beste bi arrazoi argudiatu izan dira esateko finantza- eta diru-faktoreek ez dutela eraginik eskualdeen hazkundera. Batetik, arrazoitzeko pizgarri monetario eta finantzarioak ez direla baliagarriak, esan izan da finantza-kapitala ireki eta mugikorregia dela eskualde artean eta, horren ondorioz, ezinezkoa dela baldintza monetarioak ezberdinak izatea «munduko beste eskualdeetakoenen» aldean. Bestetik, arrazoitzeko diruak ez duela garrantzirik eskualdeetan, esan izan da eskualdeetako ekonomiek (tartean, diru-batasun baten barruko herrialdeetako ekonomiek) ez dituztela subira-notasun ekonomiko eta politiko osoko herrialdeetako ekonomiek dituzten tresna monetario konbentzionalak, hala nola diru-politika, kanbio-tasa ezartzeko tresnak, eta finantzak eta bankuak arautzeko politika.



Hori guztia ikusirik, ondorioa da finantzak ez direla palanka egokiak eskualdeetako dinamika ekonomikoan eragina izateko eskualdeek ez dutenez gero identitate monetariorik. Edonola ere, gauza bat da horrelako palankarik ezin erabiltzea dena delakoagatik, eta beste bat, guztiz ezberdina, palankaren posizio finkoak emaitza ekonomikoak ez baldintzatzea edo palankak zenbait eskualdetako hazkundera eta atzerapen-arazoak konpondu ahal izatea berriro erabili ahal izango bagenu ere. Azken batean, beste arrazoi asko izanda ere eskualdeen hazkundera ekonomikoaren azterke-

tan finantza-gaiak alde batera uztea justifikatzeko, atentzioa ematen du zer desegokia den diruaren neutraltasun-printzipioari eustea eskualde-mailan; izan ere, baldin eta espazioan berdintasunik ez handia badago ekoizpen-faktoreen erabilgarritasun-eta erabilera-mailaren, ekoizpen-ahalmenaren, espezializazio-mailaren... aldetik, li-tekeena da pizgarri monetario eta finantzarioek ondorio ezberdinak izatea eskualde batzuetan eta besteetan eta ondorioak iraunkorrak izatea zenbait eskualdetako ekoizpen-mailan.

Aurreko paragrafoan azaldutako guztia gorabehera, teoria monetario ortodoxoak betidanik esan izan du errenta errearen hazkundera (dela eskualdeetako, dela herrialdeetako) diru-gaiekin batere zerikusirik ez duten faktore errearen mende bakarrik dagoela epe luzean eta, horren ondorioz, diru-gaiak (eta finantza-gaiak) estalki bat bezala direla eta prezioen mailan bakarrik (inflazioan) dutela eragina. Hedaduraz, ereduak dio banku-sistema neutrala dela eskualdeen hazkunderan, finantza-erakundeek gauza bakarra egiten baitute: herrialdeetako diru-eskaintza eskualdeetan banatu.

Epe laburrean, berriz, merkatuaren hutsegitez hartzen diren egoera jakin batzuetan (informazioa osoa ez denean eta prezioak zurrunik direnean), diru-politikak eta banku-sistemak izan dezakete eraginik errealtatean, baina ondorioak kaltegarriak dira beti: batetik, baldin eta merkatuko prezioak zurrunik badira, fluktuazioak eragin ditzakete ekoizpen-mailan epe luzean; bestetik, baldin eta hutsegiteak (informazioaren asimetriak edo transakzio-kostu handiak) badaude merkatuan, eskualdeetako kreditu-merkatuak segmenta ditzakete, eta kreditua modu eraginkorrean esleitzea galarazi. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da teoriak postulatzeko duela baldin eta merkatuan horrelako hutsegiterik ez badago badirela ontzi komunikatuak, eskualde arteko finantza-fluxuak bermatzen dituztenak eta, hartara, lehia orekatua izatea eragiten dutenak. Izan ere, lehia orekatua izatea ziurtatzen du finantza-baliabideen eskualde arteko banaketa eraginkorra izateak: baldin eta eskualdeek erabilgarri dituzten finantza-baliabideak (aurrezkiak) handiagoak badira haien erabilera potentziala (inbertsioa) baino, eskaria gehiegizkoa den eskualdeetara irteten dira baliabideak—.

Ikuspegi horretatik, ondorioa da baldin eta baliabideak ibilgetzeko oztoporik ez badago eta banku-bitartekariak eraginkorrak badira eskualdeek ez dietela aurre egin behar kreditua murrizteagatiko finantza-arazoei eta «merkatuko indarrek» (interetasek eta inbertsioaren errentagarritasunak) gehien behar dituzten tokietara bideratzen dituztela eskualde arteko finantza-fluxuak; hots, banku-sistemak gizartearen hazkunde ekonomiko orokorra sustatzen duela, eta, azkenean, nolabait, prozesu horrek eskualderik kaltetuenei ere on egiten diela, zeharka.

Zenbait autorek onartzen dute horrek eskualde arteko ezberdintasunak betikotzen lagundu dezakeela, aurrezkiak esportatzen dituzten eskualdeek funts gutxiago edukiko bailituzkete beren inbertsio-proiektuak finantzatzeko maileguak emateko eta, gainera,

beren finantzak neurri handiago batean geratuko bailirateke eskualde garatuagoen mende, baina, alegatzen dutenez, inola ere ezin da esan banku-sistemaren jokaera diskriminatzailea denik, merkatuak ematen dituen seinaleek bakarrik gidatzen baitute –alde horretatik, eskualdeen artean hazkunde-potentzial eta -aukera errealen aldetik dauden ezberdintasunen isla dira merkatuak ematen dituen seinaleak–.

Edonola ere, beste planteamendu teoriko batzuek ezeztatu egin dute aurreko paragrafoan laburtutako argudio konbentzionala (dioena dirua eta banku-sistema neutralak direla eskualdeen hazkunde ekonomikoan, edo are kaltegarriak baldin eta «merkatuaren hutsegite» esaten zaien baldintzak badira): berariaz, diruaren neutraltasun-printzipioa ukatu dute eta, hortaz, ikusarazi dute finantza-sektoreak badi-tuela beste bide batzuk hazkunderan eragina izateko. Adibidez, horixe egin du eskualdeetako kreditu-merkatuei buruzko teoria postkeynesiarrek. Berariaz, diruaren neutraltasun-printzipioa ukatu du, eta bi elementu berritzaile erabili ditu eskualdeetako kreditu-bolumenean eragina duten faktoreetan sakontzeko: batetik, banku-sistemaren garapen-maila eta, bestetik, eskualdeetan kreditua sortzeko prozesuan parte hartzen duten eragile guztien (aurreztaileen; kreditu-eskaintzaileen, alegia, bankuen; eta kreditu-eskaintzaileen, alegia, inbertitzaileen) likidezia-hobespenaren aldaketak.

Banku-sistemaren garapen-maila kontuan hartuta, autore postkeynesiarrek ukatu egiten dute banku-bitartekariak aurreztaile eta inbertitzaileen arteko bitartekari pasiboak direnik; izan ere, alde ekonomiko eta finantzariotik garatuen dauden ekonomietan behinik behin, banku-sistemak baditu baliabide ugari kreditu-eskaintza gehiago handitzeko gordailu-baseak uzten diona baino. Hori dela eta, ekonomia garatuetan, finantza-sistemak ezin du egin aurreztaile eta inbertitzaileen arteko bitartekaritza-lana bakarrik (ohikoa). Aitzitik, «finantzaketa-lan» delakoa ere egin behar du; izan ere, gordailuen bidez eskuratutako baliabideak berriz banatzeaz gain, banku-sistemak baditu bitarteko ugari eskualde batzuetako kreditu-eskaintza handitzeko beste batzuetakoa txikitu beharrik gabe. Hain zuzen ere, finantzaketa-funtzioa beteta izan dezake finantza-sistemak eragin onuragarria eskualdeetako jardue-ra ekonomikoaren hazkunderan. Gainera, ikuspegi horretatik, enpirikoki aztertu beharreko gai nagusia ez da zenbateraino parte hartzen duten eskualdeek kreditu-bolumen orokorrean (kredituaren banaketa), baizik eta zergatik eskualde jakin batzuetako kreditu-eskaintzaileak (bankuak) eta kreditu-eskaintzaileak (inbertitzaileak) ez dauden prest mailegu gehiago emateko eta hartzeko, hurrenez hurren (kredituaren sorrera), eta nola esku har dezakegun politika ekonomikoaren bidez kreditua sortzen laguntzeko eskualde jakin batzuetan –horretarako, ordea, ez da nahikoa azterketa teorikoa bakarrik izatea; beharrezkoa da testuinguruaren araberakoa izatea–.

Beste hipotesi aipagarri bat ondorioztatzen da azterketa postkeynesiarretik. Ekonomia garatuetan, kreditua sortzea bi faktoreen mendean dago: kreditu-eskaintzaileen (bankuen) eta kreditu-eskaintzaileen (inbertitzaileen) jokaeraren mendean eta, bereziki, horien guztien likidezia-hobespenaren aldaketen mendean; bada, pentsatzekoa da gutxi garatutako ekonomiek erabilgarri duten kreditua ezegonkorragoa

dela, likidezia-hobespena gehiago aldatzen baita ziklo ekonomiko osoan eta litekeena baita banku-sistema gutxiago garatu izana. Hots, hipotesi hau ondorioztatzen da azterketa-esparru horretatik: gutxi garatutako eskualdeetan, ziklo ekonomikoak ere badu eragin handia erabilgarri dagoen kredituan, ez bankuek herrialde osoan eman-dako guztizko kredituan gutxiago parte hartzeak bakarrik –horixe dio teoria konbentzionalak–.

Orain arte azaldutakotik ondoriozta daitekeenez, diru- eta finantza-faktoreek eskualdeen garapen ekonomikoan duten eraginari buruzko ikerketak aurrera egin du azken hamarkadetan, baina oraindik ere zalantza asko ditugu argitzeko. Gainera, krisialdi honek fronte berriak ireki ditu, ikuspegi teoriko batzuek itxiztat zituztenak. Hori ez da inola ere kaltegarria, nahiz eta zalantzan jarri hipotesi eta teoria finantzario finkatuak. Aitzitik, komunitate zientifikoak aprobeztatu beharko luke hausnarketa autokritiko bat hasteko finantzen funtzionaltasunari buruz. Horrelako hausnarketarik ez badago, beldur gara krisialdi honek ez duela balioko ezta hurrengo hobeto bideratzeko ere, merkatu-ekonomiaren garapenak berezkoa baitu finantza-ezegonkortasuna, John Maynard Keynes eta Hyman Minsky maila intelektual handiko ekonomialariek zuzen adierazi izan dutenez –ortodoxia ekonomikoak eta politika ekonomikoaren arduradunek berandu ezagutu dituzte, Minsky batez ere, eta gaizki interpretatu askotan–.

Badira zenbait urte analista nabarmen batzuk eta are iritzi-sortzaile batzuk eskatzen ari direla agintari ekonomikoek irmoki esku har dezaten eta finantza-sektorea berregitura dezaten, uste baitute gaur egun neurritz kanpoko eta disfuntzionala dela finantzak eta hazkundea gero eta bananduago daudela eta. Era berean, urte asko eta asko dira beste autore batzuek (tartean, heterodoxotzat ezin hartuzko batak: James Tobinek) onartu zutela eszeptikoak zirela merkatuaren funtzionamendu librearen finantza-sistemaren eraginkortasuna bermatu ahal izateari buruz, eta, horregatik, Tobinek argi eta garbi adierazi zuen, 1980ko hamarkadan, orduan aldeztu ziren joeren (liberalizazioaren eta desarauketaren) kontrakoa zela, liberalizazioak eta desarauketak ez zutelakoan bermatzen sistemaren «eraginkortasun funtzionala». Badirudi gaur egun horrelako hausnarketak egiten ari garela berriz, eta, areago, zenbait adierazi izan dute «finantzen alde iluna» mugatu behar dela, nahiz eta duela zenbait urte aldarrikatzen zuten ezin dela mugatu ezin mugatuzkoa, finantza-munduan bereziki. Paradoxa ederra!

Beraz, tunelaren irteera begi bistan egongo denean eta kontabilitateak krisia atzean gelditu dela egiaztatzen duenean, finantza arloko eztabaidaren pendulua gaur egun dagoen tokitik, zoritxarrez, beste muturrera aldatuko dela uste dugu. Espero dugu oker egotea, baina, historiak dioenez... zenbait akats behin eta berriz gertatzen dira. Horregatik, oso garrantzitsua (eta egokia) iruditzen zaigu idatziz uztea zer-nolako hausnarketak egiten ari diren finantza-sektoreari buruzko ikertzaile batzuk krisialdiaren ostean Espainian finantza- eta banku-munduan sortzen ari den egoera berriak eskualdeen hazkundean eta garapenean izango duen eraginari buruz. Gainera,

gure ustez, oso ona da aipatutako hausnarketak ikuspegi teoriko, jarrera metodologiko eta alde historiko eta espazial askotatik egin izana: horri esker, gaiari buruzko ikuskera plural eta aberasgarria izango dute interesa duten irakurleek. Behintzat, hori izan da gure asmoa edukiak diseinatzerakoan; emaitza, ostera, irakurleek bakarrik epaitu dezakete.

Ale honetan bildutako bederatzi ekarpenak hiru multzotan banatu ditugu. Lehenengo multzoko lehenengo lana **Carlos Rodríguez**-ek egin du, eta banku-sistemaren funtzionamenduak eskualdeetan dituen ondorioei buruzko literatura laburtu du, barnean hartuta zer ekarpen egin diren berriki finantza-gaien eta hazkundearen arteko harremana aztertzeko. Azterketaren helburua da nabarmentzea bankuak ez direla neutralak eskualdeen hazkunde ekonomikoan, zentralak baizik, bi faktore direla medio: batetik, ustez badira informazioaren asimetriak eta merkatuaren hutsegiteak, eskualdeetako kreditu-merkatuak segmentatzen dituztenak; bestetik, desberdintasun espazialak edo eskualdeen arteko desberdintasunak daude bankuen kreditu-estrategian, eta horrek eragina du eskualdeetako kreditu-eskaintzan eta eskualdeetan erabilgarri dagoen kredituan.

Lehenengo multzoko bigarren lana **Antonio Torrero Mañas** irakasleak egin du, eta duela zenbait urte Espainian zoritxarrez gaur-gaurkoa den gai bat aztertu du: «barne-debaluazioa» gertatzeko aukerak eta haren ondorioak. John Maynard Keynesen lana eta pentsamoldea sakonki ezagutzen du irakasleak, eta hura izan du euskarri. Inspirazio-iturri, berriz, 1925ean Erresuma Batua erre-patroira itzuli izana hartu du. Oso azterketa interesgarria da, argi eta garbi azaltzen baitu zer-nolako ondorio errealak izan ditzaketen diru-gaiei buruzko erabakiek maila sektorialean eta mikroekonomikoan eta, gainera, argi eta garbi frogatzen baitu finantza-fenomenoen ondorio errealak xaloki eta itsuki aztertzen direla batzuetan (askotan, gehiegitan).

Lehenengo multzoko hirugarren lana **Santiago Carbó** eta **Julia García** irakasleek idatzi dute. Deskribatu dute zer aldaketa izan diren Espainiako banku-merkatuaren egitura finantza-krisialdi honetan eta zer berezitasun izan dituzten aldaketek, eta, aldi berean, ebaluatu dute zer ondorio izan dituzten Espainiako ekonomiako finantzaketa-bideetan. Bereziki, lanak aztertzen du ea Espainiako finantza-erakundeek likidezia lortzeko barne-zirkuituak sortu izana baliagarria izan den bankuen kreditu-eskaintza txikitu izanari aurre egiteko, berankortasunak gora egin baitu eta kreditu-eskaintza uzkurto egin baita.

Lehenengo multzoko azken lana **Victoria Chick**, **Sheila Dow** eta **Carlos Rodríguez**-ek egin dute, eta aztertzen du zer ezaugarri izan behar duten nagusi helburutzat hazkunde ekonomikoa duten banku-sistemetan. Azterketa egiteko erabili dituzten argudioak eta plantamenduak ez dira esparru teorikoan bakarrik oinarritzen, ebidentzia eta esperientzia historikoan ere baizik; hain zuzen ere, Espainiako banku-sistemak azken hamarkadetan izandako ohiz kanpoko aldaketak eman duen ebidentzia eta esperientzia historikoan.

Bigarren multzoa ere lau lanek osatzen dute, eta, oso bide ezberdinetatik bada ere, azterketa eskualde-mailan aplikatzen saiatzen dira laurak. Lehenengo lana **Angel Bergés, Emilio Ontiveros** eta **Francisco José Valero**-k idatzi dute, eta aztertzen du zer ondorio izan dituen bankuen eta zor subiranoaren krisiak Espainiako ekonomian, zer berrelikadura dauden haien artean, eta zer-nolako ondorio larriak izan dituzten Espainiako finantza- eta banku-sistemak dagokion funtzioa behar bezala betetzeko: ekoizpen-jarduera ekonomikoa finantzatzeko. Azterketaren ondorioa da beharrezkoa dela zera egitea: banku-batasuna eta ikuskatzaile bakarra izatea Europan; Europako Banku Zentralaren diru-politika aplikatzeko arazoak konpontzea, finantzaketa enpresetara iristeko; eta Europako Banku Zentralean zor publikoa zuzenean erosten hastea.

Bigarren multzoko bigarren lana **Carlos Rodríguez, Fernanda Faría** eta **David Padrón**-ek egin dute, eta aztertzen du zer ondorio asimetrico izan dituen diru-politika bakarrak eurogunea osatzen duten herrialdeetan. Zehazki, lanak laburtzen du zer ebidentzia enpiriko sortu diren diru-politika bakarrarengatik eskualde arteko asimetrien inguruan euroguneak egin dituen ia hamabost urteetan. Azterketak bi helburu ditu: batetik, orain arteko emaitza enpirikoei buruz hausnarraraztea; bestetik, Europako Banku Zentralaren diru-politikaren egungo esparru operatiboan zenbait aldaketa egin daitezkeen proposatzea, ondorioak arintzeko.

Bigarren multzoko azken bi lanek ardatz hauek dituzte: harreman-bankuak eta Espainiako enpresa txiki eta ertainek kanpo-finantzaketa lortzea baldintzatzen duten faktoreak. **Gary A. Dimsky**-ren lanak aztertzen du zer garrantzitsua izan daitekeen harreman-bankuen eginkizuna Espainian ekoizpen-sektoreari finantzaketa emateko eta zer zailtasun sorraraz ditzaketen Espainiako finantza-sektorearen aldaketa handiek segmentu horretan, azkenean eragin baitezakete gutxi garatutako eskualdeek kreditu gutxiago izatea erabilgarri.

Yaiza Armas, Esperanza Gil, Estefanía Hernández eta **Sandra Morini**-ren lanak, berriz, aztertzen du zer faktorek baldintzatzen duten kanpo-finantzaketa lortzea eta, bereziki, krisia aipatzen du, eta zer-nolako ondorioak izan dituen Espainian enpresa txiki eta ertainen finantzaketan 2009 eta 2011 artean. Emaitzek diotenez, enpresaren sektoreak, tamainak eta adinak eragina dute finantzaketaren lorpenean, erabileran eta eraginkortasunean, baita hura lortzeko itxaropenean ere.

Hirugarren multzoan bada Euskadiko banku-sistema aztertzen duen lan bat, **Alberto Alberdi**-rena. Autoreak aztertzen du banku-sistemaren eginkizuna Euskadiko ekonomiak 1980tik izandako hazkunde-prozesu ikaragarriaren finantzaketan eta, bereziki, azken ziklokoan, Atzeraldi Handia ekarri zuenekoan. Azterketak frogatzen du nahiz eta kanpora begira nahiko fidagarria izan Euskadiko ekonomiak ere parte hartu duela krisialdi honetara ekarri gaituen finantzarizazio-uholdean eta kredituaren neurritz kanpoko hazkunderan, hipoteken boomaren bidez bereziki eta baita enpresa taldeak sortzeko finantza-inbertsioen bidez ere. Hau da lanaren ondorioa: kri-

sialdiaren ondoren eta kredituak behe jo ondoren, Euskadin ere sumatzen dira kreditu-murrizketaren (credit crunch delakoaren) eta kapital-eskasiaren (capital crunch delakoaren) zantzuak, eta, araudi berria ikusirik, horrelakoek are gehiago oztopa dezakete susperraldi ekonomikoa.

Azkenik, beste bi lan bildu ditugu «Beste kolaborazio batzuk» atalean. Batetik, **Juan Antonio Calvo**, **Ana Cristina Mingorance** eta **Carolina Bermejillo**-ren lanak deskribatzen du nolakoa izan den Euskadiko hazkunde-eredua, eta gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin alderatzen du. Funtsean, ondorioa da hazkunde-ereduaren oinarria izan dela langileen orduko produktibitatearen hazkundera. 1970 eta 1992 artean eta 2006 eta 2011 artean, hazkundera handiagoa izan zen BPGrena baino, arrazoi ezberdinak zirela medio: 1970 eta 1992 artean, kapital-metaketatagatik nagusiki, eta, 2006 eta 2011 artean, aurrerapen teknologikoagatik. 1993 eta 2005 artean, berriz, faktore hauek baldintzatu zuten Euskadiko ekonomiaren hazkundera: lan-merkatuak, enplegu-tasak, lan egindako batez besteko ordu kopuruak eta, batez ere, jarduera-tasak.

Bestetik, **Nagore Aranguren**, **Juan Luis Ochoa** eta **Elena Ochoa**-ren lanak aztertzen du gizarte- eta ingurumen-gaiei buruzko zenbat eta zer informazio jakinarazi zuten jendaurrean Gipuzkoako enpresa handiek (250 langiletik gorakoek) 2008an. 2007tik (kontabilitate-plan orokor berria indarrean sartu zenetik), nahitaezkoa da horrelako informazioa jendaurrean jakinaraztea, eta, 2007ko eta 2008ko urteko txostenen edukia aztertuta, autoreek bi indize kalkulatu dituzte, zenbat eta zer informazio jakinarazi zen jakiteko. Bada, aztertutako 49 enpresen emaitzek adierazten dute neurri handi batean betetzen dela araua baina kalitate txarreko informazioa ematen dela.